

Demokrazia, gizartearen beharrianak ordezkatzean datza, gizartearen nahiak asetzeko helburuarekin. Gaur egun ordea, demokraziak sinesgarritasuna galdu du, krisi demokratiko bezala ezagutzen dena sortuz. Krisi demokratikoaren gaur egungo adierazle nagusienetarikoa bat, Erresuma Batuko Brexit delakoa da. urtean, herrialdea Europako Autonomia Erkidegoan sartu zen.

Une horretatik aurrera, gatazkak eta desadostasunak egon dira Erresuma Batua bertan mantentzearen inguruan. Hori dela eta, bi izan dira Londreseko parlamentuak onartu dituen erreferendumak arazo hori konpontzeko helburuarekin. Emaitza ezezkoa izan zen, botoemaileen %67ak ezetz bozkatu baitzuen. Bestalde, 2016ko ekainaren 23an Erresuma Batuan egindako bigarren erreferendumaren emaitzek lehia estua egon zela adierazten dute.

Aipatutako datuek Erresuma Batuko gizartea oso banatuta dagoela adierazten dute. Gainera, erreferendumeko parte-hartzea 1980tik izandako altuena izan zen, herritarren %72,2ak bozkatu baitzuen. Krisi demokratikoarekin batera, jendeak sisteman sinesgarritasuna galtzea dator. Hemen agertzen dira «indignatu» bezala ezagutzen direnak.

Horregatik, «indignatuak» eta elite ekonomiko eta politikoak izango lirateke batez ere Brexitaren alde bozkatu zutenak. Brexitaren kanpainak ekarri duen ondorio nagusienetarikoa bat haustura izan da, soziala zein territoriala. Erreferendum batek gizartearen polarizazioa ekar dezake. Beraz, esan dezakegu erreferendum bat antolatzean, gizarteak zuzenean hartzen duela erabakia. Aipatutakoa bozketa mota honen alde positiboa izango litzateke.

Hala ere, aurretik esan bezala, erreferendumak gizartearen polarizazioa dakar, alde negatibo bezala ikusi dezakeguna. Gainera, alderdi politikoen haustura ere eman da, izan ere, ez laboristen ez kontserbadoreen taldeak ez dira puntu honetan batuta egon.

Azken arrazoia Europar Batasunaren erakundearen aurkako jarrera izan zen. Europar Batasuneko kidea izateak astean diru kantitate izugarri baten kostua zekarrenaren ideia hedatu zen biztanleriaren artean, honek behin betiko erabakia zehaztu zuelarik. Aipagarria da Brexitaren propaganda politikoan AEBko finantza politikoaren agertzen dela, herrialdea Europar Batasunetik irteteko interesak baitaude.

Izan ere, AEBk sistema ekonomiko aske bat bermatu nahi du bi herrialdeen artean, arantzelik gabekoa hain zuzen. Esan beharra dago, Brexita aurrera eramateak ondorio kaltegarriak ekarriko lituzkeela. Ondorio bezala, esan genezake Brexitak ekarriko zituzkeen onurak goi klaseko mailak besarkatuko zituzkeela bakarrik. Prozesu hau ez da bukatu, Erresuma Batuan abenduaren 12an parlamentua osatzeko hauteskundeak egingo baitira.

Hemen guztiz erabakigarria izango da biztanleen erabakia, alderdi desberdinen proposamenetan oinarriturik beste erreferendum bat izango balitz bezala jokatu dutelarik. Laburbilduz, esan genezake Brexita gaur egungo krisi demokratikoaren ondorioetako bat dela. Bestalde, nahiz eta erreferendumak gizartearen erabakia bermatzen duen, gizartearen polarizazioa ekar dezake.

Erreferendumaren emaitzak britaniar herritarrek Europar Batasunean jarraitu nahi zuten ala ez erabakiko zuen, emaitza Brexit-aren aldeko gehiengo estu baina argia izanik. Emaitza horren ondorioz, Brexitaren aldeko botoaren ondorioei buruzko iritzia ugari eman dira. Onartu beharra dago erreferenduma Konstituzioari zuzenean eragiten dieten gaiak ebazteko baliabide erabilgarria izan daitekeela. Baina orduan, aldez aurretik ezarritako esparru batean egin beharko litzateke, maila goreneko arau batekin, non prozedura eta eduki arau batzuk ezarriko diren. Brexitaren kasuan ez da horrela izan, eta horregatik, erreferendumaren zilegitasunaren inguruko arazo batzuk planteatzen ari dira orain.

Alde batetik, erreferendumaren eraginkortasuna aurreikusterakoan ez zen Erresuma Batuen errealitate plurinazionala kontuan hartu. Emaitzei erreparatuz, Ingalaterran Brexit-aren aldeko botoa % 75,2koa izan zen, Eskozian % 38koa eta Ipar Irlandan % 44,2koa. Beraz, lurralderik jendetsuenak bere borondatea ezarri zuen beste lurraldeen gainetik.

Bestetik, kontuan izan behar dugu zein den erreferendumaren emaitza aplikagarria izan dadin behar den gehiengoa. Irizpiderik demokratikoena hautesle-eroldaren gaineko botoen gehiengoa lortzea litzateke, beraz, herrialdea Europa Batasunetik irtetzeko gutxienez Erresuma Batuko boto-emaitzen %51k irteteko borondatea adierazi beharra zuen. Honen inguruan ez zen ezer zehaztu, baina Brexit-aren aldeko botoa ez zen hauteskunde-eroldaren % 51ra iritsi, eta, hala ere, Erresuma Batuak Europa Batasuna utzi behar du.

Bi auzi nagusi hauek kontuan hartu ez izateak Brexitaren inguruko erreferendumaren zilegitasuna zalantzan jartzen du. Gainera, Brexit-ak dakartzan ondorio guztiak hasieratik argi eta garbi identifikatu izan balira, emaitza ezberdina zitekeen. Izan ere, erreferendumetik egun gutxira boto-emaitze askok beren botoa zalantza jarri zuten, eta abstenitu ziren beste batzuk botoa ez emateaz damutu ziren.